IRURTZUNGO UDALA (NAFARROA)
Foruen Plaza, z/g
31860 Irurtzun

AYUNTAMIENTO DE IRURTZUN (NAVARRA)
Plaza de los Fueros, s/n
31860 (Irurtzun)

# IRURTZUNGO UDALBATZAREN OSOKO BILKURAREN AKTA
# *ACTA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN DE IRURTZUN*

Irurtzunen, bi mila eta hogeita biko abuztuaren 2an, arratsaldeko 19:30ak direnean, aldez aurretik legeak agintzen duen moduan deituta, Irurtzungo udaletxeko osoko bilkuren aretoan udalbatza elkartu da ohiko bilkura egiteko, Aitor Larraza Carrera jauna alkate - lehendakaria buru dela. Bertan izan dira Udalbatzako zinegotzi hauek:

*En Irurtzun, siendo las 19:30 horas del día 2 de agosto de dos mil veintidós se reúne en el Salón de Plenos de la Casa Consistorial la Corporación del Ayuntamiento de Irurtzun al objeto de celebrar sesión ordinaria, previamente convocada en forma legal, bajo la Presidencia del Alcalde - Presidente, Don Aitor Larraza Carrera, con la asistencia de los concejales y las concejalas de la Corporación que se enumeran a continuación:*

Ana Balda San Juan andrea.
Ana Santander Lizaso andrea.
Antonio Ollakarizketa Elizondo jauna.
Eduardo Murugarren Frances jauna.
Joseba Royo García jauna.
Naiara Gartzia Royo andrea.
Enrique Tenorio Ruiz jauna.

*Doña Ana Balda San Juan.*
*Doña Ana Santander Lizaso.*
*Don Antonio Ollakarizketa Elizondo.*
*Don Eduardo Murugarren Francés*
*Don Joseba Royo García.*
*Doña Naiara Gartzia Royo.*
*Don Enrique Tenorio Ruiz.*

Ezin etorria adierazi dute Agurtzane Garijo Peralta andreak, Domingo Goñi Sarasola jaunak eta Luis Enrique de la Calle Moreno jaunak.

*Excusan su asistencia Doña Agurtzane Garijo Peralta, Don Domingo Goñi Sarasola y Don Luis Enrique de la Calle Moreno.*

Idazkari lanetan, udalbatzarena, Eguzkiñe Aiesa Andres andrea.

*Asistida la Corporación por mí, la Secretaria Municipal, Doña Eguzkiñe Aiesa Andres.*

Saioari 19'33ean eman zaio hasiera.

*Se da inicio a la sesión siendo las 19'33 horas.*

**1.- 2022ko maiatzaren 10ean ospatutako Osoko Bilkuraren aktaren onarpena, hala badagokio.**

***1.- Aprobación, si procede, del acta de la sesión plenaria del día 10 de mayo de 2022.***

2022ko maiatzaren 10eko osoko bilkuraren aktari buruzko eztabaidan hitzartzerik izan gabe bozkatu da, eta aho batez onartu da.

*Se procede a someter a debate y votación el acta de la sesión plenaria del día 10 de mayo de 2022, que sin toma de palabras queda aprobada por unanimidad.*

**2.- Alkatetzaren ebazpenen berri ematea, 2022/71tik – 2022/204 ebazpenera.**

***2.- Dar cuenta de las resoluciones de alcaldía, desde la 71/2022 hasta la 204/2022.***

Alkatetzaren ebazpenei buruz hitz egiteko txanda ireki da. Ebazpen horien zerrenda bilkurako gainerako dokumentazioarekin batera bidali zen, eta Enrique Tenorio jaunak honako galdera hauek egin ditu:

*Se abre el turno de palabras sobre las resoluciones de alcaldía cuya relación se envió junto al resto de documentación de la sesión, y, don Enrique Tenorio, formula las siguientes preguntas:*

Lehenik eta behin, Ugaldeta inguruan eraikuntza - lizentzia ukatzeko arrazoia galdetu du (Alkatetzaren 139/2022 Ebazpenari buruzkoa). Alkateak azaldu dio eskaeran ez zela zehaztu lanabesetarako etxola edo aisialdirako - etxola ote zen, eta Udalak azken modalitate honetako etxola zela ulertu zuela. Beraz, honako etxola mota Udal Planaren aurkakoa zelako ukatu zen.

*En primer lugar, pregunta la razón para denegar licencia de construcción en el paraje Ugaldeta (referido a la Resolución de Alcaldía 139/2022). El Alcalde le explica que, se denegó ante la no concreción en la solicitud sobre si se trataba de caseta para aperos o de recreo, siendo que el Ayuntamiento entendió que se trataba de esta última modalidad, contraria al Plan Municipal.*

Bigarrenik, Tenorio jaunak galdetu du ea ebazpen - zerrenda honetan jasotako diziplina - faltak lehendik ere zehatutako langile berari buruzkoak diren edo, aitzitik, beste pertsona bati buruzkoak diren. Alkateak erantzun du lehenago beste langile bat zigortu zela, eta gaineratu du kasu honetan lanpostura arrazoirik gabe ez joateagatik izapidetu direla zehapen - espedienteak.

*En segundo lugar, el señor Tenorio pregunta si las faltas disciplinarias que constan en esta relación de resoluciones se refieren al mismo trabajador que ya fue anteriormente sancionado o, si, por el contrario, se trata de otra persona. El Alcalde responde que anteriormente se había sancionado a otro trabajador y ha añadido que en esta ocasión se han tramitado los expedientes por faltas de asistencia injustificadas al puesto de trabajo.*

Azkenik, Arrupe Elkarteari, Corpus Christiri eta antzeko elkarteei kiroldegia erabiltzeko baimena ez emateari

*Finalmente, don Enrique Tenorio pregunta acerca de las denegaciones de uso del polideportivo a Arrupe*

buruz galdetu du Enrique Tenorio jaunak. Alkateak erantzun du elkarte horiek kiroldegia erabiltzea eskatu dutela eskaerei erantzun ezin izan zaien kasuetarako, hala nola Zerbitzu Anitzeko langileak oporretan egon direnean edo herriko jaiak izan direnean.

*Elkartea, Corpus Christi y similares. Contesta Alcaldía que se trata de asociaciones que han solicitado el uso del polideportivo para ocasiones en las que no se ha podido atender, por estar los trabajadores de Servicios Múltiples de vacaciones o ser fiestas de la localidad.*

Galdera gehiagorik egon ez denez, Udalbatza 2022/71 eta 2022/204 arteko ebazpenen jakitun geratu da.

*No habiendo más preguntas, la Corporación se da por enterada de las resoluciones de alcaldía 71/2022 a 204/2022.*

**<u>3.- 2022ko plantilla organikoaren aldaketa, hala badagokio.</u>**

***<u>3.- Modificación de la plantilla orgánica de 2022, si procede.</u>***

Alkateak puntuaren sarrera egin du, eta azaldu du aldaketa A mailako kontu - hartzailetzako plaza bat sortzean datzala, indarrean dagoen legeriara egokituta. Hala ere, ez da proposatzen egun José Antonio Otazu Ferrer langileak betetzen duen B mailako kontu - hartzailetzako lanpostua amortizatzea; izan ere, honakoa eginez gero, kontu - hartzailetza hutsik geratuko litzateke sortu berri den plaza behin betiko bete arte (A mailako kontu - hartzailetzarena), eta honakoa denboran luzatu egingo da, foru - gaikuntza duen funtzionario batek bete beharreko plaza delako. Beraz, A mailako kontu - hartzailtzako hautaketa - prozesuek aurrera egin ahala, plantilla organikoa berriz aldatuko da, eta, aldaketa horren bidez, gaur egun «2» izena duen plaza amortizatuko da (kontu - hartzailetza – B maila), eta gaur egun «2 BIS» deitzea proposatzen den lanpostua «2» deituko da (kontu - hartzailetza – A maila).

*El Alcalde introduce el punto, explicando que la modificación consiste en la creación de la plaza de Intervención de nivel A, adaptada a la legalidad vigente. Sin embargo, no se propone la amortización de la plaza de Intervención de nivel B actualmente ocupada por el trabajador don José Antonio Otazu Ferrer, ya que de esta manera la Intervención quedaría vacante hasta la cobertura definitiva de la plaza de nueva creación (Intervención de nivel A), que se alargará en el tiempo por tratarse de plaza a cubrir por una persona funcionaria con Habilitación Foral. Por tanto, conforme los procesos selectivos de Intervención – Nivel A avancen, se procederá a una nueva modificación de la plantilla orgánica, por la que se amortizará la plaza actualmente denominada “2” (Intervención – Nivel B) y la que hoy se propone se denomine “2 BIS” (Intervención – Nivel A) pasará a denominarse “2”.*

Gaia eztabaidagai jarrita hitzik hartu ez denez, zuzenean bozkatu da eta **Udalbatzak, bertaratutako hautetsi guztien aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:**

*Al no tomarse palabras sometido el asunto a debate, se procede directamente a votación y **el Pleno de la Corporación, por unanimidad de las personas presentes, acuerda:***

LEHENENGOA.- 2022. urteko plantilla organikoaren aldaketa hasiera batez onestea.

*PRIMERO.- Aprobar inicialmente la modificación de la plantilla orgánica para el año 2022.*

BIGARRENA.- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 235. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, onetsitako plantilla idazkaritzan egongo da aztergai 15 egun baliodunetan, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, interesdunek espedientea aztertu ahal izan dezaten eta bidezkotzat jotzen dituzten erreklamazioak egiteko aukera izan dezaten. Epe hori igaro eta erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko da.

*SEGUNDO.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 235 de la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra, la plantilla aprobada se expondrá en Secretaría durante 15 días hábiles, a contar desde el siguiente a la publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de Navarra, a fin de que las personas interesadas puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes, entendiéndose aprobada definitivamente, si transcurrido dicho plazo, no se formulasen reclamaciones.*

**4.- Irurtzungo hautaketa - prozesuetan parte hartzeko tasak arautzen dituen ordenantza fiskalaren hasierako onespena, hala badagokio.**

***4.- Aprobación inicial, si procede, de la Ordenanza fiscal reguladora de las tasas de participación en procesos selectivos de Irurtzun.***

Alkateak azaldu du ordenantza honek Irurtzungo Udalak egingo dituen hautaketa - prozesuetan espedientea formalizatzeagatiko eta parte hartzeko eskubideengatiko tasa bat sortzea proposatzen duela. Ondoren, ordenantzaren 1. eta 2. artikuluak irakurri ditu eta azpimarratu du subjektu pasiboak izango direla Irurtzungo Udaleko lanposturen bat eskuratzeko hautaketa - prozesu batean parte hartu nahi duten pertsona fisikoak.

*El Alcalde explica que se trata de una ordenanza que propone la creación de una tasa por formalización de expediente y derechos de participación en procesos selectivos que lleve a cabo el Ayuntamiento de Irurtzun. A continuación lee los artículos 1 y 2 de la ordenanza y destaca que serán sujetos pasivos las personas físicas que pretendan participar de un proceso selectivo para acceder a algún puesto de trabajo del Ayuntamiento de Irurtzun.*

Jarraian azaldu duenez, Batzordean jorratutakoarekiko aldaketa bakarra kuotaren zenbatekoa da, eta kasu guztietan 15,00 eurokoa izan beharrean, lortu nahi den lanpostuaren mailaren arabera progresiboa izatea proposatzen da, soldata ere lanpostuaren mailaren arabera aldatzen baita. Horrela, tasak honela geratuko lirateke:

*Seguidamente explica que, el único cambio con respecto a lo tratado en Comisión, radica en la cuantía de la cuota, que se propone que en lugar de ser de 15,00 euros en todos los casos, sea progresiva en función del nivel del puesto de trabajo al que se pretenda optar, ya que el sueldo también varía en esta función. Así, las tasas quedarían de la siguiente manera:*

a) A mailako hautaketa - prozesuan sartzeko: 25,00 euro.

b) B mailako hautaketa - prozesuan sartzeko: 20,00 euro.

c) B mailako hautaketa - prozesuan sartzeko: 15,00 euro.

d) D eta E mailetako hautaketa - prozesuan sartzeko: 10,00 euro.

Hitzen txanda irekita, Enrique Tenorio jaunak galdetu du ea hautaketa - prozesu batean izena ematen duen edonork tasa ordaindu behar duen. Alkateak baietz erantzun dio, batzordean jorratutakoarekiko desberdintasun bakarra progresibotasun hori dela.

Gaia bozkatu ondoren, **Udalbatzak honako erabaki hauek hartu ditu bertaratutakoen aho batez:**

LEHENENGOA.- Hasierako onarpena ematea espedientea formalizatzeagatiko tasak eta hautaketa-prozesuetan parte hartzeko eskubideak arautzen dituen ordenantza fiskalari.

BIGARRENA.- Honako akordioa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta argitaratzen den dataren biharamunetik hasita hilabeteko jendaurreko epea irekitzea. Alegaziorik egongo ez balitz, araudia behin betikotasunez onartutzat eman eta bere testu osoa NAOn argitaratuko litzateke.

**5.- Itxesia udal igerilekuen funtzionamenduari buruzko araudia aldatzearen hasierako onarpena, hala badagokio.**

Alkateak idazkariari eman dio hitza, Itxesia udal-igerilekuen funtzionamenduari buruzko

*a) Para el acceso a proceso selectivo del nivel A: 25,00 euros.*

*b) Para el acceso a proceso selectivo del nivel B: 20,00 euros.*

*c) Para el acceso a proceso selectivo del nivel C: 15,00 euros.*

*d) Para el acceso a proceso selectivo del niveles D y E: 10,00 euros.*

*Abierto el turno de palabras, don Enrique Tenorio pregunta si cualquier persona que se apunte a un proceso selectivo debe abonar tasa. El Alcalde responde que sí, que la única diferencia con respecto a lo tratado en comisión es esta progresividad.*

*Sometido el asunto a votación, **la Corporación, por unanimidad de las personas presentes, adopta los siguientes acuerdos:***

*PRIMERO.- Aprobar inicialmente la ordenanza fiscal reguladora de las tasas por formalización de expediente y derechos de participación en procesos selectivos.*

*SEGUNDO.- Publicar este acuerdo en el Boletín Oficial de Navarra y abrir un periodo de exposición pública de un mes, desde el día siguiente a su publicación. En caso de que no se presenten alegaciones, la ordenanza se entenderá aprobada definitivamente y se procederá a su publicación íntegra en el BON.*

***5.- Aprobación inicial de la modificación del Reglamento de funcionamiento de las piscinas municipales Itxesia, si procede.***

*El Alcalde cede la palabra a la Secretaria para explicar los cambios que se propone introducir en el*

erregelamenduan egin nahi diren aldaketak azaldu ditzan. Honek azaldu duenez, hizkera inklusiboa sartu da, eta kirol - teknikariari buruzko aipamenak kendu dira, alderdi hori ez baitzen aplikatzen. Gainera, funtsezko gai bakar gisa, 10. artikulua aldatzea proposatzen da. Horrela, orain arte "Udako denboraldiko bonuak ez dira nominalak izango, edozein pertsonak banaka erabili ahal izango ditu" esaten zuen lekuan, "Bonuak, edozein motatakoak izanda ere, nominalak izango dira, eta ezin izango dira izan hainbat pertsonaren artean partekatu" esatea proposatzen da. Amaitzeko, zehapenei buruzko atala berrikuntzarik sartu gabe ordenatzen dela esan du.

*Reglamento de funcionamiento de las piscinas municipales Itxesia. Esta expone que se introduce el lenguaje inclusivo y se elimina la referencia a la persona técnica de deportes, ya que era un aspecto que se venía inaplicando. Además, como única cuestión de fondo, se propone modificar el artículo 10, de forma que donde venía diciendo "Los bonos por temporada de verano no serán nominales, sino que podrán ser usados individualmente por cualquier persona" diga "Los bonos, sean del tipo que sean, serán nominales no pudiendo ser su uso compartido entre varias personas". Para acabar, comenta que el apartado relativo a las sanciones se ordena sin introducir novedades.*

Gaia eztabaidagai jarrita, hitzik hartu gabe, bozkatu egin da, eta **bertaratutako hautetsien aho batez erabaki da:**

*Sometido el asunto a debate sin que se tomen palabras, se procede a votar, siendo el resultado que,* ***por unanimidad de las presentes, se acuerda:***

LEHENENGOA.- Itxesia udal igerilekuen funtzionamenduari buruzko araudiaren aldatzea hasiera batez onestea.

*PRIMERO.- Aprobar inicialmente la modificación del Reglamento de funcionamiento de las piscinas municipales Itxesia.*

BIGARRENA.- Honako akordioa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta argitaratzen den dataren biharamunetik hasita hilabeteko jendaurreko epea irekitzea. Alegaziorik egongo ez balitz, araudia behin betikotasunez onartutzat eman eta bere testu osoa NAOn argitaratuko litzateke.

*SEGUNDO.- Publicar este acuerdo en el Boletín Oficial de Navarra y abrir un periodo de exposición pública de un mes, desde el día siguiente a su publicación. En caso de que no se presenten alegaciones, la ordenanza se entenderá aprobada definitivamente y se procederá a su publicación íntegra en el BON.*

**6.- 2022/1 aurrekontu moldaketaren hasierako onespena, hala badagokio.**

***6.- Aprobación inicial de la modificación presupuestaria 1/2022, si procede.***

Alkateak azaldu du Barazkigunearen estaldura finantzatzeko aldaketa bat dela. Obra, berez, 288.000 eurokoa da, gehi 11.000 euroko arkitektura - ordainsariak. Kontu - hartzailetzak proposatu du 300.000 euroko aurrekontu aldaketa egitea, 72.372

*El Alcalde explica que, se trata de una modificación para la financiación de la cubrición del Barazkigune. La obra en sí son 288.000 euros, más 11.000 euros de honorarios de arquitectura. Intervención propone hacer una modificación de 300.000 euros, financiado con*

euro Determinazio Libreko Funtsaren kontura finantzatua, eta 227.628 euro diruzaintzako soberakinaren kontura.

*cargo al Fondo de Libre Determinación, por importe de 72.372 euros y al remanente de tesorería, por importe de 227.628 euros.*

Alkateak diruzaintzako gerakinari buruzko informazioa gehitu du. Esan du 2021ean 322.704 euro izango direla, eta 2022rako aurreikuspena 462.754,92 eurokoa dela. Beraz, aurrekontu aldaketa hau eta gai - zerrendako hurrengo puntuan aztertuko den 2022/2 aldaketako zenbatekoa kenduta, 181.000 euro geratzen dira oraindik eta zorrik ez.

*Añade el Alcalde información acerca de la previsión sobre el remanente de tesorería. Dice que en 2021 322.704 euros, y la previsión para 2022 es de 462.754,92 euros, por lo que restando esta modificación y la 2/2022 a tratar en el siguiente punto del orden del día, quedan todavía unos 181.000 euros de remanente y nada de deuda.*

Hitzik hartu ez denez, gaia zuzenean bozkatu da, eta **Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:**

*Al no haber tomas de palabra, se somete directamente el asunto a votación y **el Pleno, por unanimidad, acuerda:***

LEHENENGOA.- Aurrekontuaren 2022/1 moldaketa hasiera batez onartzea.

*PRIMERO.- Aprobar inicialmente la modificación presupuestaria 1/2022.*

BIGARRENA.- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean, Toki Ogasunak arautzen dituen martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean eta Irurtzungo aurrekontua betearazteko oinarri arautzaileetan xedatutakoarekin bat etorriz, onetsitako aurrekontu - aldaketak udal iragarki - oholean jarriko dira ikusgai 15 egun balioduneko epean, interesdunek espedientea aztertu ahal izan dezaten eta egoki iritzitako erreklamazioak egin ahal izan ditzaten; epe hori igarota erreklamaziorik aurkezten ez bada, aldaketak behin betiko onartutzat joko dira.

*SEGUNDO.- De conformidad con lo dispuesto en la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra, en la Ley Foral 2/1995, de 10 de marzo, por la que se regulan las Haciendas Locales y con las bases de ejecución del Presupuesto de Irurtzun, las modificaciones presupuestarias aprobadas se expondrán en el tablón de anuncios municipal durante 15 días hábiles, a fin de que las personas interesadas puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes, entendiéndose aprobadas definitivamente, si transcurrido dicho plazo no se formulasen reclamaciones.*

HIRUGARRENA.- Honako akordioa udal webgunean eta iragarki oholean iragartzea, ezaguera publikoa izan dezan.

*TERCERO.- Publicar este acuerdo en la web municipal y en el tablón de anuncios, para público conocimiento.*

**7.- 2022/2 aurrekontu moldaketaren hasierako**

***7.- Aprobación inicial de la modificación***

**onespena, hala badagokio.**

Alkateak azaldu du 2/2022 aurrekontu - aldaketak aurrekontu parte – hartzaileen bidez erabakitako jarduketak gauzatzeko gastuei erantzuten diela, hala nola Ergako ibilbidea seinaleztatzea eta honen inguruko hainbat homologazio, Plazaolako tuneletik begiratokiraino egokitutako hiru atseden - eremu, atseden - guneetako altzariak, trenaren parkea, Plazaolako aparkalekua hobetzea eta gordailu zaharra ixtea, begiratokia egiteko asmoz. Aurrekoak guztira 54.000 euro egiten du, gerakinaren kontura finantzatzekoak.

Ezer esan gabe, **gaia bozkatu egin da eta, bertaratutakoek aho batez hartu dituzte honako erabaki hauek:**

LEHENENGOA.- Aurrekontuaren 2022/2 moldaketa hasiera batez onartzea.

BIGARRENA.- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean, Toki Ogasunak arautzen dituen martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean eta Irurtzungo aurrekontua betearazteko oinarri arautzaileetan xedatutakoarekin bat etorriz, onetsitako aurrekontu - aldaketak udal iragarki - oholean jarriko dira ikusgai 15 egun balioduneko epean, interesdunek espedientea aztertu ahal izan dezaten eta egoki iritzitako erreklamazioak egin ahal izan ditzaten; epe hori igarota erreklamaziorik aurkezten ez bada, aldaketak behin betiko onartutzat joko dira.

HIRUGARRENA.- Honako akordioa udal webgunean eta iragarki oholean iragartzea, ezaguera publikoa izan dezan.

***presupuestaria 2/2022, si procede.***

*El Alcalde explica que la modificación presupuestaria 2/2022 responde a las diferentes actuaciones ejecutadas de la decisión de presupuestos participativos, tales como la señalización del recorrido de Erga y diversas homologaciones, tres áreas de descanso desde el túnel del Plazaola hasta el mirador, mobiliario de las áreas de descanso, parque del tren, mejora del parking del Plazaola y cierre del depósito viejo con la intención de hacer un mirador, que en total ascienden a 54.000 euros a financiar a cargo del remanente.*

*Sin haber tomas de palabras, se somete el asunto a votación y,* ***por unanimidad de las presentes, se adoptan los siguientes acuerdos:***

*PRIMERO.- Aprobar inicialmente la modificación presupuestaria 2/2022.*

*SEGUNDO.- De conformidad con lo dispuesto en la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra, en la Ley Foral 2/1995, de 10 de marzo, por la que se regulan las Haciendas Locales y con las bases de ejecución del Presupuesto de Irurtzun, las modificaciones presupuestarias aprobadas se expondrán en el tablón de anuncios municipal durante 15 días hábiles, a fin de que las personas interesadas puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes, entendiéndose aprobadas definitivamente, si transcurrido dicho plazo no se formulasen reclamaciones.*

*TERCERO.- Publicar este acuerdo en la web municipal y en el tablón de anuncios, para público conocimiento.*

**8.- Nitxoa betiko uztea, hala badagokio.**

Alkateak esan du Rodica Mihai andreak betiko nitxoaren eskaera egin duela.

Hitzartzerik egon gabe, **Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:**

LEHENENGOA.- D eremuko E kaleko 49. nitxoa Rodica Mihai andreari betiko uztea.

BIGARRENA.- Honako akordioa eskatzaileari jakinaraztea.

HIRUGARRENA.- Eskatzaileari jakinaraztea lagapen horrengatik ordaindu beharreko tasa 749,00 eurokoa dela. Ordaintzeko epea hilabetekoa dela, erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

***8.- Concesión de nicho a perpetuidad, si procede.***

*El Alcalde dice que se ha recibido solicitud de nicho a perpetuidad por parte de Doña Rodica Mihai.*

*Sin haber toma de palabras, **el Pleno, por unanimidad, acuerda:***

*PRIMERO.- Ceder a perpetuidad el nicho Nº 49 de la calle E de la zona D a Doña Rodica Mihai.*

*SEGUNDO.- Notificar este acuerdo a la persona solicitante.*

*TERCERO.- Notificar a la solicitante que la tasa a abonar por esta cesión asciende a 749,00 euros a abonar en el plazo de un mes, a contar desde el día siguiente al de la notificación de este acuerdo.*

**9.- Nitxoa betiko uztea, hala badagokio.**

Alkateak esan du Pedro M. Sagardia Echarte jaunak betiko kolunbarioaren eskaera egin duela.

Hitzartzerik izan gabe, **Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:**

LEHENENGOA.- C eremuko H kaleko 7. kolunbarioa Pedro M. Sagardia Echarte jaunari betiko uztea.

BIGARRENA.- Honako akordioa eskatzaileari jakinaraztea.

HIRUGARRENA.- Eskatzaileari jakinaraztea lagapen horrengatik ordaindu beharreko tasa 120,00 eurokoa dela, dagoeneko Malkorratek ordaindutakoa.

***9.- Concesión de nicho a perpetuidad, si procede.***

*El Alcalde dice que se ha recibido solicitud de columbario a perpetuidad por parte de Don Pedro M. Sagardia Echarte.*

*Sin haber toma de palabras, **el Pleno, por unanimidad, acuerda:***

*PRIMERO.- Ceder a perpetuidad el columbario Nº 7 de la calle H de la zona C a Don Pedro M. Sagardia Echarte.*

*SEGUNDO.- Notificar este acuerdo a la persona solicitante.*

*TERCERO.- Notificar al solicitante que la tasa a abonar por esta cesión asciende a 120,00 euros, abonada por Malkorrate.*

**10.- Erregu eta galderak.**

Alkateak jaiak ondo joan direla adierazteko aprobetxatu du; giro ona eta parte hartzailea izan dela esan du. Nabarmendu beharreko elementu gisa, adierazi du Mank-ek kamioiak gidatzeko langilerik ez zuenez, ezin izan zela zabor - bilketa udalak eskatu bezala egin, eta asteburuko zabor - bilketa guztia igandean egin zela.

Eduardo Murugarren Frances jaunak eskatu du datozen urteetarako establezimendu guztiak (txosnak barne) lehenago ixteko.

Eta aztertzeko beste gairik ez dagoenez eta iluntzeko 19:50ak direnean, Presidenteak bilera amaitutzat eman du, eta nik, Idazkari naizen aldetik, akta hau jaso eta ZIURTATZEN DUT.

***10.- Ruegos y Preguntas.***

*El Alcalde aprovecha para reseñar que las fiestas han ido bien, con buen ambiente y participativas. Como elemento a destacar, ha comentado que debido a la falta de personal de conducción de camiones por parte de la Mank, no pudo llevarse a cabo la recogida de basuras como se había solicitado desde el ayuntamiento, siendo que toda la recogida de basuras del fin de semana se hizo en domingo.*

*Don Eduardo Murugarren Francés solicita que para próximos años el horario de cierre de todos los establecimientos (incluidas txoznas) sea antes.*

*Y no habiendo más temas que tratar y siendo las 19:50 horas, el Presidente levanta la sesión, de la que extiendo el presente Acta que, como Secretaria, CERTIFICO.*

33440403J AITOR LARRAZA (R: P3190400F)
Firmado digitalmente por 33440403J AITOR LARRAZA (R: P3190400F)
Fecha: 2022.08.04 12:20:11 +02'00'

Alkatea / *El Alcalde*,
Aitor Larraza Carrera

44635243V EGUZKIÑE AIESA (R: P3190400F)
Firmado digitalmente por 44635243V EGUZKIÑE AIESA (R: P3190400F)
Fecha: 2022.08.03 13:58:37 +02'00'

ZIURTATZEN DUT
Idazkaria / *La Secretaria*
Eguzkiñe Aiesa Andres